

Gramatikaltasuna

riek adierazki anizkunez aberastea da (Lambek, Ajdukiewicz, Bar-Hillel, Lewis, Montagus, eta abar).

Txillardegi

Gramatikaltasuna

gramaticalidad / grammaticalité / grammaticalness

→Hiztun bakoitzak, definizioz bere hizkuntzaren gramatika menderatzen bait du, eman dezake gramatikaltasun-eritzirik igorritako →esakuneei buruz. Bere hizkuntzako →hitzez osaturiko perpau bati buruz berehala esan dezake gramatikaren →erregelen arabera eratua dagoen ala ez; ahalmen hau hiztunen →konpetentziatik dator, eta ez horren kulturatik edo talde sozialetik. Beste modu batera esateko, hiztunak konstatatu egiten du gramatikaltasuna edo ez gramatikaltasuna, ez du baloraziorik egiten. Perpau baten gramatikaltasunari buruz hiztunak ez badatoz bat, berorien konpetentziak (berorien gramatikak) →sistema beraren →aldaerak direla esan nahi du horrek. Gramatikaltasun-eritziak ez dira baztertze nahiz onartze borobilak bakarrik; gramatikaltasun-mailak daude. Gramatikaltasuna, bestalde, ez da nahasi behar a) →esanahiarekin: gramatikala izan arren, ulergaitza izan daiteke perpaua: b) perpausaren →edukinaren egiatasunarekin; c) →esakune baten gertagarritasunarekin; d) gramatikala izan arren, zailtasun handia aurkezten duen perpau baten onargarritasun edo ulergarritasunarekin. Gramatikaltasuna ez da hitz edo eraikuntza baten erabileran oinarritzen, juzgu batetan baizik. Eta juzgu hau ez dator eskuratutako esperientziatik, hizkuntzaren ikaskuntzan barneratutako erregela jeneralen sistema batetik baizik.

Grassmann-en legea

ley de Grassmann / loi de Grassmann / Grassman's law

H. Grassmann-ek 1863an indoeuoparreko hasperenduei buruzko lege bat proposatu zuen, eta honela dio: oinarri berean bi hasperendu agertzen direnean, biotatik batek (normalean lehenak) →hasperenketa galtzen du. Euskaraz ere, beraz, lege hau ongi bteetzen dela esan daiteke: *ilhots* dakar Oihenartek.

Grimm-en legea

ley de Grimm / loi de Grimm / Grimm's law

→Lege fonetikoaren artean, garrantzitsuenetarikoak da Grimm-en legea. Jacob Grimm-ek 1822an aurkituriko lege honek germanikoaren historiaurreko aldi gertatutako →mutazio baten bidez azaltzen ditu hizkuntza germanikoen arteko korrespondentzia nagusiak: indoeuoparreko [bh, dh, gh] →kontsonante hasperenduak ez-hasperendu bilakatu ziren [b, d, g], →ozenak →gor bilakatu ziren [p, t, k], eta gorak hasperendu bilakatu ziren [f, θ, h]. Lege hau, zenbait salbuespen argitu gabe uzten zituenez, Verner-ek osatu zuen geroago; Verner-en legeak →azentuaren eraginaz azaltzen ditu salbuespen horiek.

Lege hau garrantzi handikoa da, eta ez bakarrik eman dituen emaitzen balioagatik, baizik eta baita epistemologiaren ikuspegitik ere. Izan ere, bera izan da →lege fonetikoaren erregulartasunaren printzipioaren justifikazioa, hain zuzen →fonetika historiko eta konparatuaren garapena bultzatu duen printzipioaren justifikazioa.

H

Hapaxa

hapax / hapax / hapax

→Corpus batetan adibide bakarra duen forma, →hitz edo esamoldeari ematen zaio *hapax* izena.

Hartzailea

Ik. JASOTZAILEA

Hasperenketa

Hasperenketa eskuarkienik →*kontsonanteetan* gertatzen den →ezagarrri fonetiko bat da; eta jasaten duten kontso-

nanteok, *hasperenduak* esan ohi dira. →Soinuarekin batera entzun daitekeen haize-kolpeari deritzo hasperenketa. Eta hala gerta dadin, denbora-tartetxo bat behar da izan: *kontsonantearen leberpetetik* hasi, eta *glotiaren hersteraino*. Honela adierazi ohi da eskuarki: (-h). Alegia: /ph/: →*leberkaria*, →*ezpainbikaria*, →*gorra*, *hasperendua*.

Itxura denez, →*atzeko* soinutan gertatzen da maizenik hasperenketa hau.

→Fonologia →bitarraren arabera, →*teinkaduraren* agertzapen fonetikoak da hasperenketa. →Chomsky-k eta Halle-k, aldiz, *teinkaduraren ezagarrietatik* berezten dute; ozentasunarekin, karrankariatasunarekin eta abar, jartzen dutelarik.

Soinu hasperenduok ugariak dira *ingelesez*, alemanieraz eta abar.

Euskarari dagokionez, berriz, *Iparraldeko* euskalkiek dituzte *soinu hasperenduak*; eta normalean dagozkien soinu hasperengabeen →*aldaera* baizik ez dira. Ik. TEINKADURA

J. R. Zubiaur
Itz.: Txillardegia

Hautapena

elección / choix / choice, selection

Kateako unitate bakoitza bere →textuinguruan agertu, →hiztunak *hautatu* duelako agertzen da, textuinguru horretan ager zitezkeen beste unitateak baztertuz. *Hautapena*, beraz, →morfemen edo gutxienezko esanahizko unitateen artean egiten da; hauek dira hautapen-unitateak, eta transmititu nahi den →mezuaren arabera hautatzen dira, textuinguru berean posible direnen artean.

Hautazkoa

arbitrario / arbitraire / arbitrary

De →Saussure-ren teorian eta arruntkiago hizkuntzalaritzan, hautazkotzat, →adierazle eta →adieraziaren artean dagoen harremana jotzen da. Hizkuntza hautazkoa da, berau, erabiltzen duten gizarteko partaideen arteko hitzarmen inplizitu bat den heinean; horregatik esan daiteke, zentzu honetan alegia, hizkuntza ez dela naturala. *Mahai* bezalako hitz batek aditzera ematen duen →kontzeptuak ez du [mahaj] →soinu-sailarekin derrigorrezko loturarik, ezta *mahai* →grafiarekin ere, hau da, hizkuntz →zeinu espezifiko batekin. Hizkuntz zeinuaren hautazkotasunak, beraz, zera galerazten du, hiztunak osatzea hizkuntz zeinu horiek, hots, halako →esanahi bat berak nahi duen forma adieraztea edo-ta alderantziz, halako forma bati berak nahi duen esanahia atxekitzea. →Onomatopoietatik aparte hizkuntz zeinua hautazkoa ez den alor bakarra →eratorpenarena da, zeren *zazpi* guztiz hautazkoa izan arren *zazpigarren* motibatua bait da, *zazpi*-rekin daukan erlazioagatik. Horregatik *hautazkotasun* erlatiboaz ere hitz egiten da. Azkenik zera aipatu behar da, hizkuntza osatzen duten hizkuntz zeinuen →alda-

ketak ez dituztela pertsona edo gizabanako isolatuek egiten; →erregela guztiei nagusitzen zaie, eta hizkuntz zeinuak garai batek bestera aldatzen badira, ez dira behin ere hitzun isolatuen borondatez aldatzen. Ik. EUROPAKO ESTRUKTURALISMOA

Hedadura

extensión / extension / extension

→Multzo bat hedaduraz definitzen da, multzo horren barruan sar daitezkeen elementu guztiak, eta horiek bakarrik, espresuki zerrendatzen direnean. Hedadurazko definizioa ezagupidezko definizioari aurkajartzen zaio. Berez, edozein multzo defini daiteke ezagupidez, baina asko ezin dira hedaduraz definitu (zenbaki-segida, adibidez). →Corpus bat, den luzeena ere, hedaduraz deskriba daitezkeen multzoa da. Hizkuntza bateko perpaus gramatikalen multzoa ezagupidez bakarrik defini daiteke: →mugagabea bait da haien kopurua.

Hedapena

expansión / expansion / expansion

1. →Linguistika estrukturallean, bi →morfema-sail →textuinguru sintaktiko berdinean agertzen direnean, hots, biek →banaketa bera dutenean eta bigarrena gutxienez bestea bezain luzea denean, hau da, gutxienez besteak adina morfema dituenen, osagaien aldetik egitura desberdina izan arren, orduan bigarrena lehenengoaren *hedapena* da, lehenengo bigarrenaren eredia delarik.

Demagun, *umea* eta *haur txikia* morfema-sailak dauzkagula: biak textuinguru berdinetan agertzen dira eta osagaiei dago-kienez egitura desberdina dute, batarena Izena + Determinatzailea bait da, bestearena Izena + Adjektiboa + Determinatzailea den bitartean. Ba, *haur txikia umea*-ren hedapena dela esaten da.

2. A. →Martinet-en arabera, perpaus bategan *hedapena* da, perpausetik, perpausak perpaus izaten jarraituz eta →hitzen arteko erlazio gramatikalak aldatu gabe, ken daitezkeen edozein hitz edo hitz-multzo. Hone-la, *Hernaniko gizona trenex etorri da* perpausaren, *Hernaniko* →izen-→sintagmaren hedapena dela esango da eta *trenex* →aditz-sintagmaren hedapena, atera bait daitezke biak perpausetik, honek perpaus izateari utzi gabe: *Gizona etorri da*.

Herskaria

oclusivo / oclusif / stop

Sin.: OKLUSIBOA

→Kontsonante bat herskaria da, beraren artikulazioak, esentzialki, ahots-kanalearen